

11. FITXA BIZKAIA – Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko 2024 urteko dirulaguntza programa

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko agentziak: udalerrri batean ez badago agentziarik industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko, jotzen da udalak berak edo dagokion mankomunitateak har dezaketela beren gain agentzia-rol hori zuzenean.¹

Sarbide esteka: [ekonomia sustatzeko bulego birtuala](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 31/2024 FORU DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, honen bidez, Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituenak, 2024 urterako.](#)

Eremuak: Eskualdeko lehiakortasuna

Zenbatekoa: 1.010.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/08 (13:30ean)

Laburpena

Programa honen helburua da erakunde onuradunek lehiakortasuna eta lurralde-oreka indartzeko sustapen ekonomikoko proiektuak eta jarduerak gara ditzaten bultzatzea. Beren eraginpeko lurralde-eremuko enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduerak izango dira, bai eta eremu horretan jarduteko gaitasunak indartzea dakartenak ere, Bizkaia Oreakin Sakonduz eskualdeko garapen-estrategiaren ildotik.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagun daitezkeen egitatetzat jotzen dira **eskualdean lehiakortasuna sustatzeko jarduerak, industria-sektoreko enpresen, industriarekin loturiko zerbitzuen, garraioaren eta handizkako**

¹ Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere: industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia propioa duten udalak edo mankomunitateak, ezta industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia bat duten udalerririk ordezkatzen dituzten toki-eremuko erakundeak ere.

salerosketaren sektoreetako enpresen beharrezanean erantzuten dietenak.

Bi jarduera-mota izango dira diruz laguntzekoak:

- a) **Ekonomia suspertzeko eta enpresa-lehiakortasuna hobetzeko jarduerak**, berrikuntza, nazioartekotzea, eta ekintzaitza aurreratua bultzatuz.
- b) Bere jarduera-lurralde eremuko enpresa-ehunaren zerbitzura dauden erakunde onuradunek **gaitasunak indartzeko jarduerak, sustapen ekonomikoaren funtzioa betez**. Mota horretan jarduketa hauek sartuko dira:
 - 1.- Eskualdeko ekonomia sustatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko **governantza-eredu** bat diseinatzea eta/edo abian jartzea. Erakunde onuradun bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du dirulaguntza, hau da, ezin izango da diruz lagundu daitezkeen gertaera hori etorkizuneko deialdietara aurkeztu, baldin eta aurreko deialdi batean dirulaguntza jaso bazuen.
 - 2.- Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta industriaren eta lotutako zerbitzuen enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzeko **eskualdeko plan estrategikoak** egitea, gutxienez lau urterokoak.
 - 3.- Beren lurralde-eremuan kokatutako **enpresa-ehunaren jarraipena** egiteko prozedurak eta sistemak garatu eta ezartzea, beren zerbitzuen hartzaile izan daitezkeen enpresen errolda bat osatuz.
 - 4.- Tokiko edo eskualdeko enpresa-sarerako bere balio-proposamena diseinatzeko (edo berriz diseinatzeko) **banakako beste ekintza batzuk** ere.

Eskatzaile bakoitzak zenbait eskabide aurkeztu ahal izango ditu.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaitu behar dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza osoaren zenbatekoa, gehienez ere, 100.000 euro izango da, erakunde onuradun bakoitzeko, kontuan hartu gabe aurkeztutako eskabideen kopurua.